


Euskadiko AEko Merkataritzako salmentak, 2021eko bigarren hiruhilekoan, aurreko urtekoak baino % 20 handiagoak izan dira

2021eko lehen sei hilekoan, merkataritzako salmentek % 10,4ko igoera izan dute

Merkataritzaren sektoreak –bertan sartzen dira *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*– % 20 areagotu ditu salmentak 2021eko bigarren hiruhilekoan, urte arteko terminoetan, prezio finkoetan eta egutegiko ondorioak atera ondoren, Eustatek dituen datuen arabera. Aurten, orain arte, salmenten igoera metatua % 10,4koa izan da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, urtaroen arabera ondorioak alde batera utzita, 2021eko bigarren hiruhilekoan salmentek % 0,7 egin dute behera.

Merkatariatzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Merkataritzaren barruan, salmenta errealek urte arteko bilakaerak positiboak izan dira adar guztietan. *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren* igoera nabarmenak izan dira, zeina % 38,7koa izan baita. Salmentek % 20,6 egin dute gora *Handizkako Merkataritzan*, eta % 16,1, *Txikizkako merkataritzan*.

Hiruhilekoen arteko terminoetan –2021eko bigarren hiruhilekoa lehenengoaren aldean–, salmentek % 0,7ko igoera izan dute *Handizkako merkataritzan*, eta gainerako

bi sektoreetan, berriz, behera egin dute: % 3,1 *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren* sektorean eta % 0,5 *Txikizkako merkataritza*.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkataritza.
Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. II/2021

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
ÍNDICE GENERAL	20,0	-0,7	10,4
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	38,7	-3,1	22,2
Handizkako merkataritza	20,6	0,7	11,1
Txikizkako merkataritza	16,1	-0,5	7,4
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	27,3	0,1	16,1
Bizkaia	20,1	-0,7	9,1
Gipuzkoa	16,3	-1,3	9,6
ENPLEGUA	-0,1	1,2	-1,6

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Lurralde historikoen arabera, Araba -% 27,3ko igoera izan du— buru da urte arteko terminoetan salmenten igoeran, eta, ondoren, Bizkaia -% 20,1—. Gipuzkoan, azkenik, salmenten urte arteko hazkuntza % 16,3koa izan da.

2021eko lehen sei hilekoko metatuan ikusten da Araba ere buru dela hazkuntzan -% 16,1—, eta, ondoren, Gipuzkoa -% 9,6— eta Bizkaia -% 9,1—.

Euskadiko AEko *Merkataritza* lanean ari den pertsonalaren indizeak behera egin du % 0,1, 2020ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, % 1,2ko igoera egon da.

INFORMAZIO-OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan kontuan hartutako enplegatuen artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientepean dauden pertsonak daude, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) enpleguaren inguruan [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jaso duen definizioari jarraikiz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, bigarren hiruhilekoko indizea % **95,86ko babesarekin** kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62